

1. IDEIA:

Gure asmakizuna zerbitzu bat da, aplikazio baten bitartez ikasleei ikasten laguntzen diena. Horrela, ikasleek ikasteko erabiltzen duten denbora guztiz probetxuzkoa izango da. Aplikazio honetan ikasleek eskuragarri izango dituzten baliabideak ugariak izango dira. Hala nola, laburpenak egiteko lagungarria da. Ikasi behar duzun eduki osoa sartzen duzu, bai idatziz (errepatatzen duzun bitartean), edota argazki bat ateraz denbora aurreztearren.

Eskemei dagokienez, aurrekoan bezala informazioa aplikazioan sar dezakezu eta aplikazioak hitz gakoak hartuko ditu horrekin eskema bat osatuz. Hala ere, badaude beste era batzuk ikasteko; esate baterako, aplikazioa testen bidez galderak egiten dizkizu informazioa barneratzeko. Bestalde, aplikazioa jakinarazpenak bidaltzen dizkizu jakin dezazun zenbat denbora behar duzun eta zenbat atal ikasi behar dituzun egun bakoitzean zure azterketa prestatzeko. Gainera, pertsona bakoitzaren arabera aplikazioak proba pertsonalizatu bat egiten dizu jakin dezan zein ikasgaietan erraztasuna duzun eta zeinetan ez.

Izan ere, aplikazioa duen beste berezitasun bat ez zaituela usten hortik ateratzen zuk aurretik jarritako denbora zehatz batean da. Honetaz aparte, proba pertsonalizatua egin ondoren, aplikazioa gomendatzen dizu denbora bat ikasten egoteko.

